


# Denbora-

## 1 Aurkitu irudian

Jonek lanerako sakelako telefonoa behar zuela eta, dendara joan da erostera. Ene, zenbat telefono! Hori aukera! Ongi begiratu, baina, hiru telefono mota errepikatzen direla ohartuko zara.



## 2 Moztu eta osatu

Hizkiak saltoka hasi, eta euren artean nahastu dira. Hizki bakoitzaren bi zatiak lotzea da zure lana. Animo!



## 3 Hitz salda

Hainbat hizki nahastu, eta zopa ederra prestatu du Idoiak. Tartean lapikoko hitzak ere nahastu ditu, ordea. Non daude hitz horiek?

# - pasak

## 4 Sortu hitzak

Bederatzi hizki hauek emanez gero, zenbat hitz sortuko zenituzke? Pentsatu ongi! **Ea** bederatzi hizkiko hitzen bat osatzen duzun!


**G R A T E K U L E**

## 5 Itzala



Felix izarrei begira egoten da gauero.

Hauxe da bere teleskopio txikia. Itzal hauetatik teleskopioarena zein den asmatuko al duzu?



Erantzunak: 2.-1-b, 2-a, 3-d, 4-c, 5.-e

Edonor izan daiteke hiltzailea, eta nor den asmatzea da zure lana. Hiltzailea bazara, disimuluan kliskatu begia lagunari!

## Nor ote da hiltzailea?

**1** Jokalari guztiak lurrean eseriko dira biribil batean. Jokalari batek orri bana banatuko die jolasean dauden gainerako lagunei. Orri horietako batek X bat edukiko du marraztua, eta gainerakoak hutsik egongo dira.

**2** Jokalariek egokitu zaien papera begiratuko dute, gainerakoek ikus ez dezaten ezkutatu, noski. X daraman papera tokatu zaion jokalaria izango da hiltzailea.



**3** Jokalari horrek gainerako lagunak "hil" beharko ditu. Horretarako, hiltzaileak begia kliskatu beharko die besteei, baina disimuluan, gainerako kideak ohar ez daitezten. Jokalari batek begia kliskatu diola ohartzen denean "hilda" oihukatuko du, eta jokotik kanpo gertuko da.

**4** Hiltzailea nor den asmatzen saiatuko dira jokalari guztiak, hala, hiltzaileak tentu handiz ibili beharko du begia kliskatzerakoan. Jokalariren batek beste lagun bat hiltzaile dela esan eta erratzen bada, jokotik kanpo gertuko da.

**5** Inork harrapatu baino lehen hiltzaileak jokalari guztiak hiltzea lortzen badu, hura izango da irabazlea.